

KANALAK



1. Komunikazio kanalak online:

WEB ORRIA

Web orria eskuragarri egongo da gailu mugikor guztientzat, interesa duten pertsona guztien irisgarritasuna errazteko.

Web orrian hainbat atal aurkituko ditugu, baina gure bezeroei gure zerbitzuen eta egiten ditugun jardueren berri ematea izango da bere helburu nagusia.

Agendaren atal bat izango dugu, hilabetean egingo ditugun jarduera guztien berri emateko. Dendan **eskaintzen ditugun zerbitzuak** ere ezagutaraziko ditugu, hala nola **egokitutako jostailu sexualen** salmenta edo interesatuentzako **orientazio-zerbitzua**. (Ez daukagu produktuen online salmentarik)

Harpidedunentzako e-posta bidezko informazio-zerbitzua izango dugu.



INSTAGRAM / FACEBOOK

Plataforma hau erabiliko dugu gure zerbitzu eta produktuen berri eta nobedadeen berri emateko, eta sexu-hezkuntzarekin eta dibertsitate funtzionala duten pertsonekin lotutako argitalpenak partekatzeko.



TWITTER

Plataforma hau erabiliko dugu dibertsitate funtzionala duten pertsonen sexualitateari buruzko jardueri, formakuntzei eta hitzaldiei buruzko informazioa partekatzeko.



INFLUENCERS BIDEZKO EKITALDIAK ETA LANKIDETZAK

Kontuan hartuta zein garaitan bizi garen eta pertsona horiek gizartean duten eragina, beharrezkoa ikusi dugu hainbat pertsonarekin lankidetzan aritzea gure burua ezagutarazteko. Batez ere, aniztasun funtzionalarekin sentsibilizatuta dauden eta gure balioekin bat datozen pertsonekin lan egingo dugu.

ERAKUNDE BIDEZKO EKITALDIAK ETA LANKIDETZAK

Aniztasun funtzionalarekin zerikusia duten inguruko hainbat elkarterekin batera lan egingo dugu. Horrela, esparru honetan mugitzen diren pertsonen artean ezagutaraztea lortuko dugu, gure zerbitzuetan interesa duten pertsona gehiago erakarriz. Horrez gain, harremanetan egoteko eta eskaintzen dituzten zerbitzu berriak jasotzeko aprobetxatuko dugu. Horrela, zerbitzu zabalagoa eta dibertsoagoa eskaintzen da.



2. Komunikazio kanalak off-line

- **Dendako kartelak.** Gure dendak hainbat kartel argitsu izango ditu barrualdea eta kanpoaldea apaintzeko.
- **Liburuxkak:** hainbat liburuxka egingo ditugu gure ekitaldien, hitzaldien edo kolaborazioen berri emateko. Horiek gure inguruko hainbat tokitan egongo dira eskuragarri, baita gizarte-etxeetan, elkarteetan eta gure dendan bertan ere.
- **Kartelak:** gure kanpainen, ekitaldien eta kolaborazioen **berri emateko** kartelak egingo ditugu. Horiek gure inguruko hainbat tokitan egongo dira eskuragarri, baita gizarte-etxeetan, elkarteetan eta gure dendan bertan ere.